

Aurretik gaztigatu bezela, Apirillaren 24 ean batzartu giñan Donostian, Kaputxinoen Komentuan, goizeko 11,30 etan.

Auek bildu ziran: Agerre Jaun, Iruñeko; Aita Onaindia Karmeldarra, Larreako; San Martin, eta Kruzeta senar-emazteak, Eibarko; Mondragoeko iru gazte (bidali zuan izenak Donostira); Juaristi, elgoibarko; C. Esnal, M. Barriola, Aita Etxaniz, Zumalabe Irigarai, eta Txillardegi, Donostiako; eta Aita Beizama Kaputxinoa, Aita Berriotxia Lasalletarra, eta Loidi Jauna, Irungo. Guzira emezortzi lagun.

Asteko, Donostiako taldeak azaldu zuen, bere buruzagien aotik. Donostiako taldeak egin dituen lanak. Auek dira lan oiek, gutxi gora beera.

a) *Antzerki-Txapelketa*.—Gipuzkoako antzerki-zaletasuna piztutzeko, antzerki sariaketa bat antolatu da. Esandako epea itzita dago, eta gipuzkoako talderik geienak artuko dute parte. Orain arte, beraz, 14 antzerki-talde auzkeztu dira. Maipuru egingo dutenak jakiñaren gañean daude, etan Maiatzean asiko dira antzesketak. Sariak eskatzen ere asiak dira.

b) *Nobela-Sariketa*.—Euskaldunak irakurtzeko oitura artu dezaten, oso egokia da liburu errexak eta errikoiak argitaratzea. Ori dala-ta, polizi-nobela-sariketa bat antolatu da. Epea datorren Samigel-egunean amaitzen da, eta gañerako baldintzak argitara emanak izan dira. Oraingoz lanik artu ez ba da ere, batzuk ari dira galde-tzen.

c) *Irrati-laguntza*.—Irratitik euskeraz ematea oso ogokia dan ezkerro, Irrati Sail bat sortzeko erabaki zan gure lenengo batzarrean. Ala egin da, eta gazte batzuk (neska-mutillak) asiak dira Donostian, astero-astero irrati-lan bat sorta magnetofoniko gertatzen. Lan auek orain arte Radio Arratera bidali izan dira bereziki, eta batzuk ere Radio Tolosara. Aita Onaindiak esan zuan Irrati-Talde onen sariak berak eskuratuko ba litu, Larrean ere euskal-emisioeren bat jarri lezakeala agian; eta xeetasunak zuzenki zeatzekotan gelditen da. Irungoak ere au jakinda berdintsu diote; eta leen bezela ere puntu oiek Irrati-Saillarekin zuzenki konpontzeko erabakitzen da:

d) *Illeroko orria*.—Erabaki bezela orri au ere illero-illero egon da, eta euskal aldizkarietara bidali da; baita Laguntzalle batzuei ere. Basarrik, eta Migel Anjel Astizek egondako zabalketa aipatzen da; eta Irungoak “Bidarra” eta J. Aranbururen bidez egin ditekeana agortzen dute. Gure orria ondo autua izan da beti: *Yakinek* eta *Zeruko Argia* zanak zati osoak argitaratu dituzte.

e) *Eskola-arazoak*.—Bañetik beñepein egiten ari dan lana aipatzen da, Aurrentzako katoi bat gertatzen asiak gera, ikastetxeetako euskal-kalseak (iru ikastola aunditan asiak dira, eta beste batzutan eta akademitan ere astekotan gera datorren ikas-taroan) eta abar. Maisuen bearra aipatzen da, eta artzen asi diran erabakiak.

f) *Euskal-erakasketa*.—Arlo nagusi ontaz ere zerbait egiteko bearrean gera. Euskerazko metodo geiegi dago, eta ori bat egon bear dala erabakita, Xabier Peñarekin izan zan billera bat Donostian. Onen metodo oso ondo ikusia izan da eta erabaki zan aurtengo udan (eta bera buru, al ba da) kursillo bat egingo dala Donostian irakleak gertatzeko.

Beste arazo batzuk aipatzen dira, baiña astirik ez dago, eta Donostiako taldear bukatzen du bere kontu-ematea, oso txalotua izanik bere lana.

*EIBARKOAK*.—Egiten dute ondoren beren azalpena.

Itz gutxitan iru lan egin dirala esaten dute: diru-biltzea, euskarazko eskolak (nagusienak). Aur-eskola bat ipiñi nai dute, antzerkia gañera. Irakasle bat Donostiara bidaltzekotan gelditzen dira, aurrai irakasten ikasteko.

*IRUNGOAK*.—Artako buruzagi batzuegana jo dutela diote, eta danetan, Euskaltzaindiaren izenean direla, arreta ona izan dutela. Irungo eta Ondarribiko batzuk gertu daude euskeraren alde lanegiteko. San Marcial-ikastolan euskerazko klase bat ipintzea erabaki da eta “Semana del Teatro” dalakoan egin bat euskeraz egitea. Gero Euskaltzaleen batzar nagusia aipatzen da (bai Arantzazun egin zana, eta joan dan urtean Eibaren), eta Irungoak an egitea eskatzen dute. Irungoen ustez giro ona dago an antolatzeke, eta itzeginda gero erantzutekotan gelditu dira.

Beste tokietakoak ez dute beren lanez ezer esatekorik. Bertsolarien txapelketaz itzegiten da orduan. Lan au Euskaltzaindiak berak antolatzen duen ezkeron onen erabakien zai egoteko esaten da. Lau erritan egingo dan ezkeron, erri bakoitzak aztertzeke erabakitzen da.

Xeetasun batzuk artu nai dira eskolai buruz. Bañobe izango litzake, geienen aburuaz, sailak artuemanak zuzenean artzea: irrati-kontuak irrati-sallarekin, antzerkionenak antzerki-sallarekin, eta abar. San Martinek Euskaltzaindiaren Laguntzalleak“ zer dan, zein diran, eta zertan ari dan azalpen bat banatzen du, artu-eman oiek norekin artu, mundu guziak jakin dezan. Berriz ere gipuzkoako buru dan Juan San Martinek edozertarako eta bildurrik gabe berari idazteke eskatzen du.

Bukatzeke, argitaratze-gauzai buruz itzegiten da; eta ondorengo erabakiak artzen dira:

a) *Zeruko Argia* - Aita Beizamak arloa zertan dan azaltzen du. Oso penagarri izango litzake aldizkari au geiagotan ez agertzea. Berriz aterako dalako itxaropena ba omen dago oraindik, eta itxogiteke erabakitzen da. Baita batzarrak orrelako aldizkari baten bearra ikusten du, eta laguntzeke gertu dago.

b) *Egan* - Aldizkari au oso mamitsua da, eta aspaldi ezkeron etendurarik gabe argitaratzen da. Alere danen ustez, bere lana ia alperrikakoa da noizean bein bakarrik ateratzen bada. Lastima dan ezkeron, maizago atera bearko litzakeala erabakitzen du. Batzuen ustez bearbada laguntzarik ezarengatik dabil orrela, eta besteenez diruaren faltaz. Dana dala, “Seminario Julio Urquijo”, koai gure asmoak adierazteke erabakitzen da, alegia, bi illean bein gutxienez argitaratzeke, eta orretarako “Euskaltzaindiaren Laguntzalleen” laguntza osoa eskeintzea. Ala egingo da eskaera.

c) “Auspoa” - Liburu-sorta jatorra egongo dala dirudi. Laguntzea erabakitzen da, eta an bertan sakabanatzen dira zabalkunde orri batzuk, eta suskrisio batzuk betetzen.

Au Guzia erabakita, batzarra bukatzen da.